



## Tokiko betaurreko moreak

Berdintasunerako I. Plana Sakanako Mankomunitatean, udaletan eta 14 herrietan ezarriko da / 2-3

## Artilea jasoko da, estreinekoz

Arbizuko Transferentzia Gunean jasoko da agorrilaren hasieran / 5

**"Agoizko Siemens-Gamesa lantegian Proiektu berrietara egokitzeko gaitasuna dugu" / 5**

**Burunda klubak 2020ko aurkezpena egin zuen eta bihar lasterketa antolatuko du Urdiainen / 8**

**Chris Fromme zuzentzea ametsa dela adierazi du Oscar Guerrero zuzendariak / 10**

**Iker Uribe lakuntzarrak Berri Txarrak taldearen omenezko murala egin du Lekunberrin / 14**

**Jorge Cordon musikaria: "Lauron arteko koreografia bat da; batasun bat lortu arte" / 13**





# Errotik abiatu, parekidea izateko

Sakanako Mankomunitatearen eta udalen kudeaketan genero ikuspegia txertatuko duen Berdintasunerako I. Plana onartu du ibarreko erakundeak. Emakumezko sakandarren aukera eta eskubide berdintasuna bermatzea du helburu

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Ibarrak garagarriko azken egunetik du berdintasun plana, egun horretan onartu baitzuen Sakanako Mankomunitateko batzar orokorrak Sakanako emakumezkoen eta gizonezkoen arteko Berdintasunerako I. Plana. Aurren hasi, eta 2023 urtera arteko indarraldia du planak, baina garapenaren arabera "malgu" jokatzeari aurreikusi dute. "Sustraietatik egin nahi du berdintasunerako bidea". Izaera estrategikoa duen plana da, Sakanaren garapenarekin lotuta dagoena eta emakumezkoen ahalduntzea eta jendartearen balioen aldatzea eta berdintasunaren aldeko Sakana ardatz dituen. Ibarreko 14 udalerriri eraginen die planak, Altsasuk duela 27a bat urtetik baitu bere Berdintasun Zerbitzua.

Sakanako Mankomunitateko berdintasun teknikari Oihana Gallo San Romanen hitzetan "berdintasunerako plana ekintza konkretu batzuen bitartez emakumezkoen eta gizonezkoen artean berdintasuna lortzeko tresna da, eta berdintasunaren aldeko lana estrategia baten barruan txertatzeko, ekintzak sistematizatzeko eta emaitzak optimizatzeko balio du". Gallok gaineratu duenez, "zerbitzu faltan, gainontzeko herriak Altsasuri begira egon gara. Altsasuko zerbitzuaren ibilbidea oso aberasgarria izan da plan honetarako". Berdintasunerako I. Plana 4 esku hartze arlotan egi-

turatu dute, haiek 13 programa eta 151 neurritan zehaztuz.

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Batzordeko presidentea da Aitzaga Zeberio Petriati, eta berak toki administrazioek "betaurreko moreak" janztearen garrantzia azpimarratu du: "tokiko esparrua da, herri-tarrendandik eta sare ekonomiko eta sozialetik hurbilen dagoena; eta, hortaz, esparru egokienetako bat da emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna integratzeko. Horrela, planaren bidez, eskualdeko ikuspegia izanen duten berdintasun politikak lantzeko aukera izanen da". Gaineratu duenez, "Altsasuk aspaldi du Berdintasun Zerbitzua, baina gainontzeko herrietan izugarritzko hutsunea genuen, berdintasunerako politikak egiteko egitura antolatuz ez genuelako". Horregatik, berez udalena den eskumena Mank-en esku utzi dute, handik berdintasun politikak sustatzeko.

Berdintasunerako I. Plana ez da koronabirusaren pandemiaren eraginaz aparte gelditu, eta badago ere isla. Gallok azaldu duenez, "azterketa feministatik abiatuta, krisiaren benetako

**"SUSTRAIETATIK EGIN NAHI DUGU EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BIDEA"**

garrantzia ulertzeko balio duen tresna izatea espero da, eta, horregatik, planaren ardatzetako bat bizitzaren jasagarritasuna da". Teknikariak azaldu duenez, "jakin badakigu Covid-19 pandemiak eragindako dimentsio anitzeko krisiari aurre egitean emakumezkoen eta gizonezkoen abiapuntua desberdina dela. Dena den, eta krisi honekin egoera larriagotu den arren, pandemia honen aurretik ere, soldata arrakala, zaintzen arrakala, partidetza sozio politikoan ezberdintasunak eta indarkeria matxista eguneroko errealitatea ziren".

## Aurreneko esku hartze arloa

Tokiko gobernantzari eragiten dio. Gallok esan duenez, "genero berdintasunaren ikuspegia ezin da modu isolatuan txertatu; ez dago esparru bakar bati lotuta. Hainbat sektore inplikatu behar ditu. Azken finean, esparru guztietako langileen ardura da genero ikuspegia txertatzen joatea, politika publikoen diseinuan, plangintzan eta ebaluazioan". Esku hartze horren helburu nagusia da tokiko gobernantzan genero zeharkakotasuna txertatzea, "eskualdeko berdintasun politikak garatzeko neurriak jarritz, genero ikuspegia eskualdeko politika eta ekintza guztietan txertatuz".

Horretarako, 5 programa abiaraziko dituzte: eskualdeko berdintasun politikak bultzatu, garatu, jarraitu eta ebaluatzeko



Sakanako Berdintasunerako I. Planaren aurkezpenean haren lanketan aritutako batzuk izan ziren.

eredua; toki administrazioek planaren garapena bermatuko duten egiturak izatea eta haien arteko koordinazioa ematea; toki administrazioen teknikariak eta ordezkari politikoek berdintasun ikuspegia txertatzea beren jardueretan; toki administrazioen prozedurek genero ikuspegia txertatzea; eta, azkenik, eskualdeko garapen estrategiak genero berdintasunean eragin positiboa izatea. Horretarako guztirako 63 neurri aurreikusi dituzte.

## Bigarren esku hartze arloa

Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak helburu dituen lan arloa da. Planean jaso daenez, indarkeria matxista "emakumezkoen eta gizonezkoen arteko botere desoreken adierazpen larrienetakoa da". Aurreikusi da Mankeko Berdintasun Zerbitzua eskualdeko gainontzeko eragile

eta zerbitzuekin batera ariko dela, "dauden baliabideen egiazko koordinazioa ahalbidetuz, horretarako egokienak diren mekanismoak sortuz, eta, bestetik, herritarren prebentzioa eta sentsibilizazioa landuz".

Arloa lantzeko bi programa eta 26 neurri jaso ditu planak. Batetik, emakumezkoen kontrako indarkeriaren detekziarako eta arreta emateko Sakanan dauden baliabideen koordinazioa ahalbidetuko da, eta indarkeria sufritu duten emakumeei arreta egokia eskaintzeko mekanismo egokienak sortuko dituzte. Gallok jakinarazi duenez, "ildo horretan lehen pausoak egiten ari gara hainbat profesionalekin tokiko protokoloa lantzeko". Bestetik, indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzeko, emakumeenganako indarkeriaren inguruko



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea - Olazti

**EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 - Iruñea







sentsibilizazioan eta prebentzioan lan egiten da.

#### Hirugarren esku hartze arloa

Sakana bizigarria eta Bizitzaren jasangarritasuna ardatz izanzen dituen itun sozial berria da 3. esku hartze arloak landuko duena. Zeberioak argitu duenez, "emakumezkoek pairatzen duten berdintasun falta, sustrai sako-neko genero desberdintasunaren egiturazko izaerari zor zaio. Horren atzean genero estereotipo eta rolak daude, oraindik ere markatuak daudenak eta bereizketa eta ospe sozial desberdinen eragile direnak, eta botere harreman ez-parekoei eusten diete". Egoera horrekin bukatu beharra dagoela gaineratu du, eta, horretarako, jendartea aldatzeari ekiteko beharra nabarmendu du: "batetik, genero arrakalak ezabatzeko, eta bestetik, erantzunkidetasunari dagokionez, gaur egun dugun defizita gainditzeko.

Gallok gaineratu duenez, "bistan da, genero rolek bizirik dirautela, eta horrek lotura duela sexuaren araberako lan bana-ketarekin, lan produktiboa (ondasunak eta zerbitzuak ordain-

sari baten truke sortzen dituzten jarduerak biltzen dituen) eta erreprodukzio lana (sarrerarik sortzen ez duten jarduerak, baina, aldi berean, bizitzarako beharrezkoak ez ezik ezinbestekoak ere badirenak) bereizten dituelako". Azaldu digutenez, Berdintasunerako I. Planean, "bizitzaren jasangarritasunaren kontzeptuak bi esparruak hartzen ditu bere baitan, eta biak elkarren menpe jartzen ditu, biek ala biek funtzio soziala eta ekonomikoa betetzen dituztelako gizartearendako".

Bi programa garatzeko aurreikusitako 13 neurritan banatuta. Aurrena da bizitzari eusteko funtsezkoak diren zaintza lanei balioa ematea. Horretarako, balio aldaketa sustatu nahi dute, bizitzaren jasangarritasuna bermatzeko behar den zaintzaren erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika bultzatuz. Horrekin

### "BERDINTASUNAREN ALDEKO LANA ESTRATEGIA BATEN BARRUAN TXERTATZEN DU PLANAK"

batera, zainketen jardun duin eta bidezkoa bermatu nahi dute Sakanan, bai familia esparruan bai esparru profesionalean.

#### Atzeneko esku hartze arloa

Haren bidez, emakumezko sakandarren ahalduentze pertsonala eta kolektiboa sustatuko duten baldintzak sortu nahi dira, emakumezkoek eskualdeko bizitza soziopolitikoan duten partaide-tza gero eta indartsuagoa izan dadin. Horri lotuta, jendartearen balioen aldaketa sustatuko da, egun indarrean dauden rol eta estereotipoak deuseztatzeko asmoarekin.

Horretarako 4 programa eta 49 neurri jaso ditu planak. Alde batetik, emakumezkoen autonomia eta ahalduentzearen arloan, ahalduentze pertsonala eta kolektiboa sustatuko da. Emakumezkoen autonomia sozioekonomikoa ere bultzatuko da. Aurreikusitako neurrietako bat da ahalduentze eskola baten bideragarritasuna aztertzea. Bestetik, Sakanako emakumezkoak eskubide osoko solaskide soziopolitikoak izateko baldintzak sortuko dira. Gainera, berdintasunaren aldeko eskualdea

izateko neurriak hartu nahi dituzte, balioen aldaketa sustatuz eta rol eta estereotipoak deuseztatuz. Azkenik, hezkidetza eta tratua onartatzen dituen herri hezitzaile izateko oinarriak jartzen hasi nahi da. "Aukera dagoen herrietan hezkidetza modu integralean landu nahi da, ikastetxez aparte, herrietan ere bai, aisialdiaren bidez edo bestelako ekintzen bidez".

#### Eta orain zer?

Teknikariak azaldu digunez, "emakumezkoen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea tokiko entitate guztien ardura da, eta arduradun tekniko eta politikoen beharra dauka. Haien arduretatik tokiko berdintasun politikak sustatu, kudeatu eta ebaluatu behar dira". Horretarako, planean bertan haren garapenerako eta jarraipenerako zenbait egitura zehaztu dira: Mank-eko Berdintasun Zerbitzua eta Berdintasun Batzordea, Mank-eko Plan Estrategikoaren baitan sortu den koordinazio egitura, herrietako Berdintasun Batzordeak, Altsasuko Berdintasun Zerbitzuarekin koordinazioa, udaletako berdintasuneko erreferentziazko teknikariak, Mank-eko batzar orokorra eta lan teknikorako eta interlokuziorako funtsezko eragileen guneak.

Baina guztia ez da administrazioaren arloan geldituko. Gallok azaldu duenez, euren nahia da "plana sakandar guztion plana bihurtzea. Plana jendarteratuko dugu". Zeberioak argitu duenez, "beste erronketako bat izanen da plan hori herri bakoitzaren errealitatean nola egokitzen den. Irailetik aurrera egingen den ariketa da". Gainera, oporretatik bueltan Sakanako emakumezkoen eta gizonen arteko Berdintasunerako I. Planaren berri emateko saioak egingen dira herrietan, sakandarrei eta eragileei aurkezteko. Gallok jakinarazi duenez, ez dira informazio saio hutsak izanen. "Plana herrietara nola egokitu aztertze eta han egin beharreko ibilbidea lantzeko saioak izanen dira".

### "ERRONKETAKO BAT DA PLANA HERRI BAKOITZEKO ERREALITERA EGOKITZEA"

Plana [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) webgunean zintzilikatuko dute, baita udaletakoetan, eta ibarrean hitz egiten diren hainbat hizkuntzetara planaren laburpen bat itzuliko dute.

## Plana egiteko prozesuaz

Berdintasunerako I. Plana egitean Mank-ek berak "prozesu" berari berebiziko garrantzia eman dio eta hura parte hartzearen, elkarlanaren, malgutasunaren, hezkuntza eta eraldaketa prozesuaren eta komunikazioaren printzipioetan oinarritzea nahi izan du. Plana egiteko bederatzi hilabete behar izan dira. Lastailean Mank-eko Berdintasun Batzordea osatu zen, eta orduan hasi zen planaren diseinuaren lanketa.

Otsailean parte hartze prozesua hasi zen. Guztiek egitura bera izan zuten: berdintasun gaien inguruko oinarritzko prestakuntzarekin hasi, planaren egitura aurkeztu eta ekarpenak egiteko aukera eman. Saiotik, gogoeta eta eztabaida kolektiboaren bidez, planaren irizpideak, lehentasunak, baldintzak eta programak definitu ziren.

Arlokako saioak izan ziren: Berdintasun Batzordea (3 saio), Sakanako alkate eta zinegotziak, udal langileak eta Gizarte Zerbitzuak, sakandarrak, Mank-eko langileak eta Tokiko Garapena. Planaren lanketan guztira 76 pertsonak parte hartu dute: 62 emakumezko eta 14 gizonzko. Zeberioaren ustez, "kuantitatiboki emaitza txukuna da. Hainbat profiletako pertsonak parte hartu dute, eta ekarpen kualifikatuak egin dituzte. Geografia oreka mantendu da. Prozesua oso interesgarria izan da".

Guztia despeditzeko, kontrasterako saio bat egin zen. Hori guztia despeditu ondoren, ekarpenak jasotzeko tarte zabaldu zen, eta sei jaso ziren. Garagartzaroaren 30ean onartzearekin batera despeditu zen prozesua, eta indarrean jartzeko garaia hasi.





ASTEKOA

RAF ATXURI

## Giza estatuak eraisten

George Floyden itogarritzko (eta ikaragarritzko) heriotza tarteko, eskubide zibilen aldeko beste uhin indartsu bat piztu da AEBetan. Amorruta, sumina eta haserre bizia Minnesotatik N.Yorkera, Alabamatik Floridaraino.

Estatu Batuetan arrazismoaren garrek oso bizirik dira, eta historiaren zama astun eta zital batez mintzo dira, baita XXI.mendean ere. Supremazismo, esklabotza, menperakuntza kolonial edo militarra... nahi den deituta emanen diogu, eta erro sakonak izanagatik, oraingo egoerak asko zor dio iragan hurbilari (azken 200-500 urteak, eman dezagun).

Arrazoi desarrazoi bilatze honetan historia modernoari begira jarri, eta botere ofizialek santututako pertsonaia dexenteri orban itsusiak atera dizkiete eta lotsagarritzat erakutsi.

Horiek horrela, munduko hainbat bazterretan (ez bakarrik AEBetan) samalda hiratuak hainbat "santu ofizial" bota dituzte haien ohorezko aldareetatik, arrazismoaren aitzakian.

Niri neroni oso harrigarria iruditzen zait, AEBetako gazte zuriek Kristobal Kolonen giza irudiak botatzen aritu izana, Ingalaterran Churchill susmopean jarri izana, edo non eta

Belgikan Leopoldo erregeak Kongon eragindako basakeriak orain hinki-hankarik gabe salatzea.

Historia eternalaren zale dohatsuak, aldiz, amorruraren paratu ditu errerbisionismo eta aktibismo honek ("Tira, gertaera kolonial

haiek hala gertatu ziren, eta zer egingen diogu, ba"), eta oraintsu eraisten ari diren izen ona eta ohorea, beti ere haien kontestu historikoan kokatuz, defendatzen ari dira.

Kontuak kontu, ez dakit nolako bira hartuko duen joera honek, pasako moda hutsa izanen den edo giza historiaren lanketa berri eta sakon bat egiteko balioko duen.

Eta gurean, zer egiten dugu Urdaneta, Elkano, Urtsua, Agirre, Iradier eta enparauekin? Bitartean, Zumarragako Euskadi plazan, Miguel Lopez de Legazpiren irudiak uneoro etxeakoak zein bisitariak agurtzen ditu, itoan den indigena baten bularra harro zapaltzen duela.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakzioara. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus



BAZTERRETIK

EDURNE LARRAZA MENDILUZE

## Robot plater sailkatzailea

Asier etorri zaigu gaur esanez izugarritzko pagotxa topatu duela merkatuan! Platerak sailkatzen dituen robota! Aho bete hortz geratu gara denak. Zertarako behar dugu guk, ordea, platerak sailkatzen dituen robota?!

Tira, harridura pasa zaigunean, eta farre batzuk bota ondoren, tramankulua martxan jartzea erabaki dugu. Zer egingo ote du? Eskuliburuak honako hau dio: Ezkerrean dagoen pila batetik hartzen ditu platerak eta eskuinaldean bi multzotan jar ditzake, 1 edo 2 deituriko multzoetan hain zuzen ere. Hori gertatzeko, robotari 1 edo 2 zenbakiez osatutako segida bat eman behar zaio.



• 1 agindua honakoa esan nahi du: hartu plater bat ezkerreko pilatik, eta jarri 1 deituriko pilan.

• 2 agindua honakoa esan nahi du: hartu plater bat ezkerreko pilatik, eta jarri 2 deituriko pilan.

Ez dirudi konplikatu. Proba bat egiteko, honako segida eman diogu robotari: 2 1 2 1 2 1.

Robotak bere lanarekin amaitu duenean, pilak honela geratu dira:

Esan ahal izango zenuke nola zeuden platerak hasieran?



Badakizue, emaitza ostiralean <https://guaixe.eus/komunitatea/EdurneLarraza> helbidean.

Hori bai, momentuz agur esan behar dizuet. Hau izango da nire azken ekarpena bolada batean behintzat. Oso polita izan da niretako zuen artean egon ahal izatea, eta Guaixeri eman didan aukera zoragarri hau eskertu nahiko nioke. ONGI SEGI!



DUELA 25 URTE...



## Piraguan ibiltzeko aukera

Izurdiagan piraguan ibiltzen ikasteko lehen pausoak irakasten zituen Bordatxo taldeak, 17 gazte arakildarrek osatutako taldeak. Maiatzagaragartzarotik iraila bitartean eskaintzen zituzten piragua ikastaroak. Hamarreko taldeei 10 orduko iraupeneko ikastaroa eskaintzen zieten, bi asteburutan banatuta. Piraguak ere alokatzen zituzten. Bestalde, Bordatxokoek negu aldean Arakil ibaian jaitsierak egiten zituzten.

## ERREDAKZIOAREN OHARRA

Guaixe astekariak kurtsoa azken zenbakia hilaren 31n aterako du. Zenbaki horretan ez da gutunendako tokirik izanen. Beraz, iritziazen atala erabili nahi duenak hurrengo astean izanen du aukera. Bestela, [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) webgunean argitaratuko dira gutunak.



# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**GK diseinu zerbitzua:**  
Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administratzailea:**  
Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Zuzentzailea:**  
Idoia Artieda Larraza

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maidor Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
Irene Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**

# Mank-ek artile bilketa eginen du estreinakoz

Ibarreko artzainek Arbizuko Transferentzia Gunera eramateko aukera izanen dute agorrilaren hasieran. Artilearekin konposta eginen dute Artaxoan. Argibideak behar dituenak 900 730 450 doako telefonora hots egin dezake

## SAKANA

Udan bero handirik ez pasatzeko, ardiei ilea moztzen diete artzainek. Artilea, garai batean, erabilera ugari zituen produktua zen, eta, beraz, artzainendako diru iturria. Gaur egun, ordea, ez du garai bateko estimazioa, eta hondakin bat bihurtu da artzainendako. Ez diote irtenbide egokirik opatzen artileari. Batzuek gaizki pilatu, lurperatu edota erre eginen dute artilea. Horren guztia jakitun, Sakanako Mankomunitateak, estreinakoz, ibarreko artzainei artilea jasoko die eta, horrela, irtenbide egokia emanen zaio hondakin horri.

Artilearen bilketa antolatuta heldu den hilaren hasieran eginen du Mank-ek. Bilketa egunak eguraldiaren iragarpenaren arabera erabakiko dira, pilatutako artilea busti ez dadin. Sakanan jasotako artilea Artaxoako konpost plantara eramanen dute, konpost bilakatzeko, eta, horrela, ekonomia zirkularra sustatzeko.

Artzain sakandarrek Arbizuko Transferentzia Gunera eraman behar dute pilatuta duten artilea. Mank-etik artzainei eskatu diete artilea zakuetan sartuta ez eramateko, Artaxoan solte jasotzen baitute. Eramandako artile kopurua guneko



Ardi motzailea Artzain Egunean lanean. ARTXIBOA

baskulan pisatuko beharko dute. Artzainek pisuaren arabera tasa pagatu beharko dute, garraio eta konpost plantako gastuei aurre egiteko. Bide batez, Mank-etik abeltzainei gogorarazi die silorako plastikoa ere gunera eraman daitekeela. Kasu horretan ere, pisuaren arabera tasa pagatu beharko da.

## Erosketak

Mank hondakinak biltzeko kamioi flota berritzen hasi da. Azaro akaberan kamioi berri bat jaso zuen, eta aurtengo azaroaren

9rako beste bat izan beharko du esku artean. Ivecok eskuratu du 135.000 euroko kontratua. Horrekin batera, Irurtzango eta Altsasuko edukiontziak berritzeko 78.500 euro bideratu ditu Mank-ek. Hiru eskaintza jaso ditu eta, gaur egun, kontratazio mahaia horiek baloratzen ari da. Edukiontziak irailean jasotzea espero dute. Bitartean, gaur egun, Manke-ko langileak kalean dau den edukiontzien inbentarioa egiten ari dira, "aldaketarako lehen tasun maila identifikatzeko" helburuarekin.

## Garbiguneak

Altsasun eta Ziordian garbiguneak egiteko lanak garagarrean despiditu ziren. Mank-en haiek nola erabiltzen diren azaltzeko materiala prestatzen ari dira batetik, eta, irekiera baimena jasotzeko zain dago bestetik. Haiek zabaldu bitartean, Mank-etik gomendatu dute Arbizuko garbigune finkoa, garbigune mugikorra edota Emausko Trapuketarien zerbitzua erabiltzea.

## Arropa

Lehenik, arropa biltzeko edukiontziak prezintatu zituzten, azaroaren erdialdera. Ondoren, Humana erakundearen edukiontziak Sakanako kaleetatik desagertu ziren. Humanak Nafarroako delegazioa ixtearen ondorioa izan zen. Eta horrekin arropa eta oihalak bereizita kudeatzeko bitarteko bat desagertu zen. Ordutik etxean soberan zegoen arropa Arbizuko garbigune finkora eraman daiteke edota Emausko Trapuketarien bilketa eskatu daiteke. Kantitate oso txikia bada garbigune mugikorrera eraman daiteke.

Egoera bideratzeko, Mank-eko eta Emausko Trapuketarien ordezkariek bilera egin zuten garagarrean. Han adostu zuten Emausko Trapuketarien arropa jasotzeko edukiontziak Sakanan zabaltea. Edukiontzi horiek egin bitartean, orain arteko bideak erabili beharko dira jantziak egoki kudeatzeko.

## MANK-EK AURTEN HONDAKINAK BILTZEKO KAMIOIA ETA EDUKIONTZIAK EROSIKO DITU



Lurra prestatzen. UTZITAKOA

## Konpost plantako lanak hasiak

Arbizuko Transferentzia Gunean konpost planta jasotzeko lanak joan den hilaren akaberan hasi ziren eta lastaila akaberarako despiditza espero dute. 830.000 euro inguruko inbertsioa eginen du Mank-ek. Azpiegitura horretan ibarrean urtean biltzen den materia organiko guztia kudeatuko da: 1.000 tona inguru urtean, baita herritarrek eta udalek eramandako inausketako beste 700 tona ere. Bestetik, makina bat sakandar izan dira azken hilabeteetan Arbizuko Tranferentzia Gunetik pasa direnak konposta hartzera. Mank-etik jakinarazi digutenez, 75 tona, edo 131.000 litro, eraman dituzte baratze, soro eta etxeetan erabiltzeko.

WEB BERRIA

**amayackindegia.eus**

1964

**Amaya**

OKINDEGIA





Pikuxarren ekimen bateko parte hartzaileak. ITZIAR MATXAIN

# Pikuxar guztiz errotzeko

Gauzak ongi, egoitza berrian ospatuko du Pikuxarrek adinez nagusi dela. 100 bat irurtzundar elkartu dira eraikin berri bat zaharberritu eta kulturgintza, euskalgintza eta herrigintza ardatz dituen egitasmoari behin betiko habia emateko

**Alfredo Alvaro Igoa** IRURTZUN

Pikondo berri bat landatzera doaz 100 bat bazkide Irurtzun erdian, San Martin eta Lizarra kaleen bidegurutzearen ertzean. Hala ere, Pikuberri horrek izen zaharra mantenduko du: Pikuxar. Duela urte pare bat hasi ziren proiektu horrekin Pikuxar euskal txokoko kideak. Etxea erosi zuten eta orain berritzen ari dira. Jorge Iriarte Ollok, Pikuxar euskal txokoko kideak, gaztigatu duenez, "beti esan dugu garrantzitsua barrukoa dela: elkarte, elkarkide guztiak eta guztion artean garatzen dugun kultur proiektua".

Pikuxar 2003. urtean abiatu zen, garai bateko Mabell taberna alokatuz. Haren aldean egoitza berria "handia" izanen dela nabarmendu digu Iriartek: "Ta etxe oso bat guretake izanen dugu. Hiru solairu izanen ditu. Behe-

koan taberna egonen da. Orain arte bezala, euskal txoko bat, arnagune bezala herriari irekita". Elkarteko kideendako bigarren eta hirugarren solairuak izanen dira. "Bigarrenean behar dugun tamainako jantokia eta sukaldea egonen dira. Hirugarren solairua pixka bat txikiagoa izanen da: terraza, jarduera anitzak hartzeko areto handia, haurrendako txoko txiki bat. Denetatik, disfrutatzeko".

**Eraikuntza eta kudeaketa**

Lanak dirutza balio du. "Horregatik eman dugu hainbeste

**GAUR EGUN GOIZEZ ZABALTZEN DUTE TABERNA; OSTIRALETAN GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ**

denbora hau martxan jarri arte". Etxea erosiz hasi ziren. Horretarako, aurreneko gauza jendea biltzea izan zen. "Ea nor zegoen honekin motibatuta, bultzada bat emateko. Ez bakarrik auzolanetan, diru ekarpenetan ere bai, noski". 100 bazkide elkartu dira eta 20 urtera begirako proiektua egin dute. "Horrela, mailegu interesgarri bat lortu dugu, proiektua ekonomikoki bideragarria egiteko".

Eraikinak badu teilatua. Barruko guztia momentuz irekia dago. Udan iturgintza, elektrizitate eta berogailurako hoditeria jartzeko lanak despidetzea espero dute. Ondoren, espazioak bereizteko paretak jarriko dituzte. "Udazkenean ikusiko dugu nola goazen, hornitzen hasteko". Oraingoz ez dute mustutzerako datarik jarri nahi.

Lanak despiditu bitartean taberna dena eta elkarte nola kudeatu aztertzen ari dira. "Lan handienak tabernak ematen dizkigu. Gu ez gara irabazi asmoa duen enpresa. Herriari arnagune bat eskaintzen diogu: taberna bat non euskara bermatzen den". Orain arte Pikuxarrek kontratatu ditu langileak, baina pixka bat harago joan nahi dute, "gehiago profesionalizatu. Agian entitate bat sortu, esaterako, kooperatiba bat... Ikusiko dugu nola kudeatu".

**Nolaz**

Pikuxar non eta nola kokatu. Eztabaida hori 2003an sortu zuten sortzaileek. "Diru eta esperientzia faltagatik, taberna alokatu genuen. Baina beti esaten genuen egokia litzatekeela jabetzan zerbait izatea, alokairuan dirua ez botatzeko". Finantza arloak 2008an eragindako krisiak ekonomia estutasuna eragin zien. Horri lotuta jendearen ohitura aldaketak etorri ziren. Gainera, kide batzuek, familia edo lan kontuengatik, Pikuxar utzi zuten, eta beste herri batzuetara joan ziren bizitzera.

2016an bi aukera jarri zituzten mahai gainean: "hau itxi edo handira jokatu. Hainbat aukera aztertu genituen, eta egungo etxea erosteko aukerarekin egin genuen topo. Kokapena egokia zen gure kultur proiektua garatzeko. 2016an gauza pixka bat argitu zen, eta 2017ko hasieran erabaki genuen honekin aurrera egitea".

Egitasmoak aurrera egiteko bazkidetza kanpaina jarri zuten martxan. Guztiak aurrera egiteko gutxieneko bazkide kopurua ehuneko zen. "Hiru hilabetetan 40 bazkide berri sartzea lortu genuen. Horrekin aurrera jarraitzea bideragarria zela ikusi genuen". Egoitza berria 120 bazkiderendako diseinatu dute. "Udaren ondoren, jendea parte hartzera gonbidatzen hasiko gara berriro ere. Nahi badute, egoitza berria barrutik ezagutzeko aukera emanen diegu, eta

**"DINAMIKOAK GARA, ETA DENEN ARTEAN EGINEN DITUGU GAUZAK, AUZOLANEAN"**

bazkide egiteko ere bai. Bazkide gehiago izateak gauza gehiago egiteko gaitasuna emango liguke eta datozen 20 urteetako ekonomia karga, maileguko interesak, arinduko litzaiguke".

**Bideaz eta antolakuntzaz**

Pikukideen iritziz, 17 urteko ibilbidean "herrian euskaldunok elkartzeko erreferentzia fisiko bat lortu dugu. Irurtzundarren %35-40k badaki, baina egunekoan gutxi erabiltzen da, %10 agian. Hasieratik Pikuxarren helburua erabilera bultzatzea izan zen. Horregatik, bermatzen dugu tabernariak, musika eta abar euskaldunak izatea. Horrekin batera, herrian kulturari bultzada txiki bat eman diogula uste dugu". Elkartearen izaera irekia nabarmendu du Iriartek: "gure jarduerak ez dira soilik bazkideendako, baizik eta herriari irekiak. Horiekin, udalak antolatzen dituen kultur jarduerak osatu ditugu".

Guztia garatu ahal izateko aurretik despiditzen den plan estrategikoa egin zuten, eta "helburu guztiak ez, baina ildo nagusiak betetzen" ari direla esan du Iriartek. Zaharberritzea gauzatzeaz aparte, kultur proiektuari bultzada ematea ere jasoa zegoen plan horretan. "Kultur gintzaz aparte, euskalgintzan sakondu dugu, eta hainbat dinamika lagunduko ditugu. Eta herrigintzan herriko beste taldeekin harremanak sendotu ditugu".

Pikuxarrek aurrera egiteko, hainbat batzorde ditu, hilean edo bi hilabeteetan behin elkartzen direnak. Haien bidez osatzen dute herrian dagoen kultur jarduera. Horien adibideak dira azken hiru urteetan antolatutako Gau Beltza (Halloweenen bertako berezko ordezkoa), inauteriak edo Eguberrietako agenda. Kultur gintza, euskalgintza eta herrigintza lantaldeak zirenak bakarrean batu dituzte, "hobeki koordinatzeko".

Batzorde gehiago daude: eraikin berrirako obra batzordea, finantzena eta komunikazioarena (bazkideen animazioaz eta kanpo harremanez arduratzen dena). Guztien gaitetik, zuzendaritza batzordea dago. Kudeaketa batzordeak zuzendaritzari laguntzen dio. Eta finantza batzordeak badu laguntzen duen taldea bat. "Oso aktibo gaude. Jendea nekatzean, aldatu egiten dira taldeak".

**Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)**



Agoizko Siemens Gamesa lantegian ari diren Altsasuko lantegi ohiko langileak. UTZITAKOA

# Altsasutik Agoitza, itxieraren mamua

Haize errotendako palak egiten dituen Agoizko lantegia itxi nahi du Siemens-Gamesak. 10 urtean Nafarroan ixten duen seigarrena litzateke. Altsasun lan egiten zuten 40 langilek itxieraren mamua bizi dute berriro

**Alfredo Alvaro igoa** ALTSASU  
Siemens-Gamesa enpresak Agoitzen duen lantegiko langileek bost greba egun iragarri dituzte. Atzo aurrena egin zuten, eta hurrengoak hilaren 23an eta 29an eta agorrilaren 6an eta 7an izanen dira. Enpresa batzordea eta zuzendaritza bilduko diren egunetan egiten dituzte lanuzteak. Lantegia itxtearen kontrako protestan ari dira 239 langileak. Langile horietako 40 bat, Altsasuko lantegia itxi zenean, Altsasutik Agoitzera lekualdatu zituzten.

Azken horietako bat da Ana Lopez Martinez. Duela 13 urte hasi zen Gamesaren Altsasuko lantegian, eta gaur egun enpresa batzordeko (ELA 6, LAB 4, UGT 2 eta CCOO 1) kide da ELA ordezkatzuz. Azaldu digunez, langileek hedabideen bidez jaso zuten lantegiaren itxieraren

berri; "aurpegira esateko ausardiarik ere ez zuten izan". Joan den urtean Apoyos Metalicos lantegia itxeko jakinarazpena garagarriaren bukaeran egin zutela gogorarazi diogu Lopezi. "Haien iritziz, enpresak oporretan daude, eta beste gauza batzuk ditugu buruan. Eta, akaso, pentsatzen dute erresistentzia gutxiago egiten dugula. Jakina, oker daude. Urte normala balitz sanferminetan geundek, eta gobernu erdia kanpoan legoke".

## Berrogeiez

Altsasuko lantegia itxi zutenean Agoitzen 55 langile birkokatze-ko eskaintza egin zuen enpresak. Hara lanera joandakoetatik, gaur egun 40 gelditzen dira, Agoitzera joatea erabaki zutenetako batzuek utzi egin zutelako. "Itxierako dokumentuan jasoa zegoen Agoitzera joanda-

koek epe bat zutela inolako kalte-ordainik gabe lana uzteko. Batzuek ez segitzea erabaki zuten". Gelditzen diren Altsasuko 40 langileetatik guztiak ez dira sakandarrak, baina bai gehienak. Agoitz 90 km-tara dago. Egunero 180 km-ko joan-etorriak egiten dituzte. Langile sakan-darrek, txandaka, autoa partekatzen dute joan-etorri horiek egiteko. Altsasu itxi ondoren Agoitzera bizitzera joan zen langileren bat ere badago.

Agoizko lantegiko langileen batz besteko adina 45 urtekoa da. Altsasuko lantegian aritu zirenean, berriz, 40 ingurukoa da. Haien bizi-proiektuarekin kezkatuta daude: familia-kargak, etxebizitzakohipoteka... Senideen babesa dute. "Eta behar dugun guztian lagunduko gaituzte. Ez itxeko borrokatu behar dugula esaten digute". Lopezek esan

digunez, langileak "indartsu" daude, "egunetik egunera gogo handiagoarekin ikusten ditut. Bat eginda gaude".

Enpresa berak bigarrenaz kalera bota nahi dituela-eta zer sentitzen duen galdetuta, Lopezek: "suminduta, oso haserre nago. Eta, aldi berean, borrorakako indartsu nago. Hau ez da itxiko". Gaizki egin zuen Gamesak Altsasuko lantegiaren itxiera, eta Espainiako Auzitegi Gorenak 2015ean ebatzi zuen 150 langileen kaleratzeak bidegabeak izan zirela. "Lantegi honen itxierarako benetako arrazoirik ez dago. Argi dugu. Lantegia ez itxea da gure helburua".

## Gobernuari

Nafarroa eolikoaren arloan aitzindaria izan zen. Lopezen iritziz, "hori saldu zuen gobernuak, baina enpresa horiei guztiei, pitteka-pitteka, banaka-banaka, ixten utzi die. Nahiz eta urtetan diru publikoa jaso duten, inolako penalizaziorik gabe ixten dituzte. Diru publikoa jaso duten enpresa guztiei gobernuak, gutxienez, enplegua bermatzeko eskatu beharko lieke". 10 urtean Gamesak 5 lantegi itxi ditu Nafarroan (Altsasukoa 2010ean eta Olatzagutikoa 2019an). "Diru publikoa jaso eta hemen jartzen du lantegia, baina gero, enpleguetan pentsatu gabe, ez du alde egiteko inolako erreparorik".

Agoizko itxiera gauzatuko balitz, Gamesaren zerrendako seigarren lantegi itxita litzateke. Lopezek azaldu digunez, 2008an zabaldu zuten lantegia. "239 langile finko gara, baina itxiera jakinarazi aurreko astean, denbora luzea zeramaten aldi baterako 80 langile bota zituzten. Gainera, hainbat enpresa laguntzaile ere baditu lantegiak berarrendako lanean. Beraz, ez digu soilik guri eragiten". Lopezek azaldu digunez, azken urteetan batz beste 400 bat langile egon dira Agoizko lantegian lanean.

## Argudioak

Enpresak ekonomia eta ekoizpen arrazoiak eman ditu lantegia itxeko. "Baina ez dira errealak.

**ITXIERAREN KONTRAKO SINADURA BILKETA HASI DUTE LANGILEEK IRUÑEKO KALEETAKO POSTUETAN**

Azken urtean oso produktiboak izaten ari gara. Asteko zortzi pala egin izan ditugu. Taldeko beste lantegi batzuekako erreferentzia ginela, onenak ginela, esaten zuten". Langileek ez dituzte Gamesaren argudioak sinisten. "Garai batean probetarako prototipoak egin genituen, eta halakoetan ez zaio diruari erreparatzen. Baina ekoizpenera bideratu denetik, errentagarria izan dela uste dut".

Ixtearen atzean "deslokalizazio hutsa besterik ez dago" langileen iritziz. Agoitzen egiten ari diren pala modelo Tangerrera eraman nahi omen du enpresak. Agoitzen egitekoa zen pala baten prototipoa ere beste lantegi batera eraman zuten azkenik. Lopezek azaldu duenez, "Agoizko lantegi berria eta handia da. Eta pala handiagoak egiteko prestatuta dago: 145, 155 eta askoz handiagoak ere bai. Nahi badute hemen egin daiteke. Proiektu berrietara egokitzeko gaitasuna dugu". Altsasuko lantegia itxeko aitzakia espazio falta zen, "baina hemen arrazoi horrek ez du balio".

Lan karga 2021eko irailera arte dago bermatuta, hala sinatuta baitute zuzendaritzak eta enpresa batzordeak lantegiko lan hitzarmenean. "Nik sinatu zuenarekin hitz egin nuen, itxiera zurrumurruak zabaldu zirenean. Eta esan zidan beldurrik ez izateko, sinatuta baitzegoen. Itxieraren berri izan aurreko astean gerentearekin bildu zen enpresa batzordea, eta ziurtatu zigun 2021erako lana bazegoela. Eta jakinarazi zigun hurrengo astean errusiar batzuk eskaera egitera etorriko zirela. Gezurretan aritu ziren gurekin". Gamesari lan hitzarmena ez betetzea leporatzen diote.

Gobernuaren eta alderdien babesa jaso dute langileek. "Elkartasun faltsurik ez dugu nahi. Benetako inplikazioa eskatzen diegu lantegia itxi ez dadin. Gure lanpostuak berma ditzatela nahi dugu. Gaur Gamesa delako, baina bihar beste edozein". Horregatik, langileek Nafarroako Gobernuari "bustitzeko" eskatu diote.

Bestalde, COVID-19 gaitza agertu zenean enpresa batzordeak "nahikotxo presionatu genuen, baldintza haietan ezin zelako lanik egin, eta aste baterako etxera bidali gintuzten. Gobernuaren agindua betez ere itxi zen. Baina bestela lanean aritu gara. Protokoloak ezartzen joan dira. Batzuk erdizka bete dira, baina ongi".



# Burundak "denboraldi atipikoa" aurkeztu zuen

**TXIRRINDULARITZA** Larunbatean 2020 denboraldiko taldeak aurkeztu zituen Burunda Txirrindularitza Klubak Altsasun. Guztira 47 gazte trebatuko dira, eskola, kadete eta junior mailetan. Bihar, larunbata, eskolen mailako lasterketa dago Urdiainen

## Maidet Betelu Ganboa ALTSASU

Ezohiko datan eta maskarak jarrita, COVID-19 birusa agertu ondoren Iortia Kultur Gunean egiten zen lehen ekitaldia izan zen larunbateko Burunda Txirrindularitza Taldearen aurkezpena. Juanmari Guajardo speaker altsasuarrak gidatu zuen ekitaldia. Javier Ollo alkateak klubaren lana eskertu, eta ekitaldia zeinen ondo antolatatu zuten goraipatu zuen, segurtasun neurri guztiak bete baitziren.

Gorka Mintegi Burundako idazkariak klubeko babesle eta esponsorrak eskertu zituen, euren laguntzarik gabe taldea ateratzea ezinezkoa baita. Familiek

duten inplikazioa eta egiten duten lana azpimarratu zituen ere, eta Burundako familiara ongi etorria eman zien aurten klubean hasi diren sei familiei. "Uste dut guztiok egiten dugula posible, modu batera edo bestera, neska-mutiko hauek txirrindulari izatea. Aurten denboraldia atipikoa da. Hala ere, ilusioa badugu, babesle berriak ditugu eskoletan, eta gogotsu gaude" nabarmendu zuen Mintegik.

Aurten 43. denboraldiari ekingo dio Burunda Txirrindularitza klubak, eta 47 txirrindulari trebatuko dira bertan. Eskoletako babesle nagusiak Quesos Albeniz, La tasca de don Jose, Katealde

eta Garaje Urbasa dira, eta kadeteena eta juniorrena Quesos Albeniz eta Makor Maillot berria estreinatu dute txirrindulariek. Mintegik aipatu zuen osasun pandemiagatik bertan behera geratu direla Burundak antolatzen dituen kadeteen hiru lasterketak -Altsasun, Urdiainen eta Iturmendin-, eta jubenilen Altsasukoko lasterketa. Hala ere, gutxika "argia ikusten" ari direla nabarmendu zuen Mintegik, eta osasun egoeraren aurrean arduratsu jokatu beharra azpimarratu zuen.

Mintegiren hitzekin bat egin zuen Oscar Guerrero Burundako presidentea. "Kirolariok gizar-

tearendako adibide izan behar dugu. Klubean arduratsuak izan gara. Zehaztutako osasun protokoloak beteko ditugu, osasun egoerari behar bezala erantzuteko; Burunda serioa eta arduratsua da" nabarmendu zuen. Halaber, Burundak ateak zabalik dituela berretsi zuen. "Jende berria etortzen bada, eroso senti daitezten nahi dugu. Ongi etorriak dira txirrindularitzan murgildu nahi duten guztiak. Etor daitezela, klubean lantzen diren balioak bereganatu ahal izango dituzte, klubak dituen 43 urteetan nire balioak izan direnak. Burundan ez gaude lasterketak irabazteko; txirrindularitza sustatu nahi dugu. Badakigu oso kirol lehiakorra dela eta denoi irabaztea gustatzen zaigula, baina gure helburua ez da irabaztea. Hemen, euren bidea egin eta gero, txirrindulariek klubaz eta txirrindularitzaz gozatu izana espero dugu, esperientzia bikaina izatea. Gainera, txirrindularitzan landutako balioak eramango dituzte, euren bizitza guztirako baliagarriak izango direnak" nabarmendu zuen presidentea.

## Eskolen proba bihar Urdiainen

Bihar, larunbata, uztailak 18, 16:00etan, eskolen mailako lasterketa izango da Urdiainen, arratsaldean, Burundak antolatuta. Ziordiko proba irailaren 5ean izanen da, Altsasukoko irailaren 12an eta Olaztikoa urriaren 4an.

Bestalde, junior mailako txirrindulariek igandean mustuko dute denboraldia, Lizarran jokatu den Nafarroako Junior mailako Errepide Txapelketarekin (10:00, 89,2 km). Kadeteak, aldiz, uztailaren 26an hasiko dira, Beran (10:00, 44 km).

## Junta

Oscar Guerrero da Burundako presidentea, Iñaki Lasa presidentordea, Gorka Mintegi idazkaria, Ismael Perez diruzaina, eta Joxean Begiristain, Goyo Chamorro eta Pablo Urtasun bokalak.



## BURUNDA TXIRRINDULARI TALDEA 2020

### 47 txirrindulari Burundaren familian

Burundak maillot berria aurkeztu zuen larunbatean lortian. "Denboraldi atipikoa da hau, baina hasteko ilusioa badugu" azaldu zuen Burundako idazkari Gorka Mintegik. Guztira 47 txirrindulari trebatuko dira talde gorrian. "Esperientzia bikaina eta kirol honek sustatzen dituen balioak eramango dituzte hemendik, bizitza guztian baliatuko dituztenak" azpimarratu zuen Oscar Guerrero presidentea.

**Eskolak (32):** Promesak (3): Javier Ramirez de Alda, Joritz Claver eta Irati Agirre. *Entrenatzailea:* Xabier Ramirez. **Hasiberriak (10):** Daniel Curiel, Asier Galarza, Adei Maraño, Iker Agirre, Enara Perez, Aitor Piedra, Ekaitz Zufiaurre, Egoi Urtasun, Ezkai Lakunza eta Markel Urteaga. *Entrenatzaileak:* Miguel Lakunza eta Damian Urteaga. **Kimuak (9):** Xabier Curiel, Unai Gomez, Asier Flores, Markel Lizarraga, June Franco, Alex Gonzalez, Gabriel Gonzalez, Aitzol Hernaz eta Ibai Galarza. *Entrenatzaileak:* Iker Flores, Silvia Perez eta Borja Gonzalez. **Haurrak (10):** June Etxeberria, Ekaitz Perez, Ekain Imaz, Hegoi Garcia, Oihan Hernaz, Andoni Yerai Bedoya, Ion Aierbe, Iker Begiristain, Pablo Senosiain eta Iker Gomez. *Entrenatzaileak:* Ismael Perez eta Ruben Garcia. **Kadeteak (8):** Asier Etxeberria, Mikel Regil, Iker Agudelo, Joseba Ortigosa, Julien Guerrero, Ander Villalobos, Mikel Uncilla eta Unax Trevejo. *Entrenatzaileak:* Ion Irigoien eta Tomas Martinez. **Juniorrak (7):** Oihan Etxeberria, Ion Chamorro, Hugo Aznar, Sergio Lopez, Iker Mintegi, Unai Aznar eta Willy Ismael Torres. *Entrenatzaileak:* Eneko Vilar eta Alex Uncilla.



C.C. LA MOREA  
C.C. ITAROA



Garaje Urbasa, S.A.



MAKOR S.L.



Laguntzaileak: Txartel, Pienso Unamuno, Berri Bikes, TDH Lizarraga, Borda Jatetxea, Lastadi, Talleres Gabirondo, Electricidad Ramos, Floristería Lorea, DYA, Ziordiko, Olaztiko, Altsasukoko, Urdiaingo eta Iturmendiko Udalak, Sakanako Mankomunitatea, Alejandro Hernandez asesoritzatzailea, Mapfre, Carpintería Larrainbide eta Yeregi ileapaindegia.



# "Eguneko erronka txikiek betetzen naute gehien"

JOSEMA URRESTARAZU ZABALO ESKALATZAILEA

**ESKALADA** Eskalatzaile altsasuarrak "Basapiztien eremua" 9a mailako bidea kateatu zuen Etxaurin San Joan bezperan, 51 urterekin, eta makina bat erronka ditu motxilan

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

"Basapiztien eremua" 9a zailtasuneko bidea kateatu berri duzu Etxaurin. Gainontzekoei sekulakoa iruditzen zaiguna, nola ikusten duzu zuk?

Aspaldi daramat honetan, eta niretzat hau beste bide bat da, besterik ez. Ez diot horrenbeste garrantzirik ematen. Normalean helburu batzuk jartzen ditut, eta horiek betetzen saiatzen naiz, batez ere nire bizitza, helburu bati lotua badago, ezberdina sentitzen dudalako. Ez dakit, biziago edo... Eta erronka amaitzen denean, beste bat aurkitzen saiatzen naiz, eta kitto. Horrek ematen dit bizia eta gogoia, bai entrenatzeko, bai orekatuta jarraitzeko.

"Basapiztien eremua" zure bigarren 9a mailako bidea da; aurrekoa 2014an kateatu zenuen Eginoko Lezen, "Akelarre". Zertan aritu zara 2014 urtetik 2020ra?

Tarte horretan bide oso gogorrak egin ditut, egin gabe zeuden zenbait proiektu, eginak gelditu direnak, ez dakit zein gradu zuten baina oso-oso gogorrak zirenak... Bestalde, askotan erronka ezberdinak jartzen ditut: bide oso gogor bat egin beharrean, pistoia pixka bat jaitsi eta pentsatzen dut: "10 bide egingo ditut 8b-tik gorakoak". Eta iaz 8b+-etik gorako 14 bide egitea lortu nuen, tartean bi 8c+. Hori, egia esan, 9a bat egitea baino erronka gogorragoa iruditzen zait, bide gehiago direlako eta ezin delako



Josema Urrestarazu "Basapiztien eremua" bidean gora. MIKEL ZABALZA

huts egin. Egin gabe dauden proiektuei dagokienez, normalean jendea ez da proiektu horietan sartzen; jendeari konfort gunean egotea gustatzen zaio, eta halako proiektu batean sartuz gero, denbora asko behar da, eta ez da jakiten bidea egitea lortuko den ala ez. Eta nik proiektu horietan denboraldiak ematen ditut; erakargarriak egiten zaizkit. Etxaurin egin gabe zeuden bi proiektu egin ditut. Ekaitz Maizenak ziren. Aspalditik ekipatuta zeuden, baina oso zailak zirenez, jendea ez zen sartzen. Izenak, egia esan, ez ditut oroitzen...

**Nabari da izenei eta palmaresari ere ez diezula aparteko garrantzirik ematen...**

Esan dizudana. Erronka batzuk jartzen dizkiot neure buruari. Saiatzen naiz haiek egiten, eta kitto. Horrek betetzen nau.

**Kirolari todoterrenoa zara: eskalada, mendia, eskia, korrika, bizikleta... akaso horregatik zaude horren sasoitsu? Eskaladako prentsa espezializatuan asko nabarmendu da 9a+ bide bat 51 urterekin kateatu duzula...**

Komunikabideei estatistikak egitea gustatzen zaie, eta esaten dute munduan hiru eskalatzaile gaudela adin horrekin maila horretan gabiltzanak: ingeles bat, italiar bat eta ni... Beno, zerrendak egitea gustatzen zaie.

**Baina aitortu behar da 51 urterekin 9a+ bat egiteak puntan zaudela erakusten duela.**

Ordu asko sartzen ditut, eta mantentzen naiz. Eskaladan ez dut sumatu beheraldi garrantzitsurik; akaso nabaritzen dut ez naizela lehen bezala errekuaritzen, baina egunero eskalatzen eta entrenatzen jarraitzen dut, topera.

**Eskia ere oso gustuko duzu.**

Bai, azken urte hauetan neguan gutxiago eskalatu dugu, mendiko eskian lehiatzen garelako. Frantzian, Espainiako Txapelketan... lasterketa guztietan ibiltzen gara. Aurten, nire mailan, beteranoetan, 3. postuan sailkatu nintzen Espainiako Iraupen Eski Txapelketan. Diziplina batean baino gehiagotan goi mailan mantentzea ez da erraza; horrek ordu asko sartzea eskatzen du.

**"BIDE HAU IKARAGARRIA DA; 90 METROKO HORMA IA BERTIKALEAN ZEHARKATZEN DU"**

Askotan, Etxauritik etorri eta jarraian mendira noa frontala- rekin, eta gaueko hamarretan bukatzen dut, edo asteburuan Pirinioetan eskiatu eta igande arratsaldean Etxaurin eskalatu...

**Aurretik GUAIXEN egindako elkarrizketa batean esan zenuen kirola zure bizitza dela eta %100ean hala izaten jarraitzen du.**

Bai, kirola nire lana eta nire bizitza da. Gorputz Hezkuntzako irakaslea naiz, eta aisialdian nire zaletasunetan aritzen naiz, kirolean.

**Bide bat kateatzearen atzean preskakuntza bat dago. Kontuan hartuta aurtengo egoera berezia, konfinamendua tartean, nola moldatu zara "Basapiztien eremua" bidearen kateaketa prestatzeko?**

2019ko iraila aldean hasi nintzen bidea probatzen. Azaroan bidea kateatzeko puntuan egon nintzen, baina euria hasi, arroka busti zen, eta saiakerak eten ziren. Konfinamendua baino lehen, Etxaurira joaten hasi nintzen eta probatzen hasi nintzen, baina gero konfinamendua iritsi zen.

**Nola moldatu zara konfinamenduan?**

Egia esan, ez naiz etxean guztiz itxita egon. Kontrabandistak bezala, mendian barna muga batetik bestera ibili naiz. Arratsalde edo gau partean joaten nintzen, eta Intxusburu, Balan-kaleku, Lizarrusti... alde horretan ibili naiz, nire kabuz.

**Noiz ekin zenion berriro "Basapiztien eremua" egitasmoari?**

Maiatza aldean hasi nintzen berriro. Temperatura oso garrantzitsua da; oso egun onak izan genituen, baina ekaitzak zirela eta, arroka bustita jarraitzen zuen. Horregatik, pauso zehatz batean erori egiten nintzen behin eta berriro, bustia zegoelako. Bizpahiru egunetan eguzkia aterazen, pixka bat lehortu zuen, eta bide guztia egitea lortu nuen.

**90 metroko luzera du bide horrek. Hori oso luzea da...**

Hori da bide horren gakoa. Luzera horren ondorioz, azala asko apurtzen da, eta gero hanketako mina handia da. Izan ere, nik oinetakoetan 43 zenbakia dut, baina katu oinetan 38 zenbakia erabiltzen dut. Ertz txiki-txikietan ibiltzeko prezisio handia behar da, eta, horregatik, katu oinek txikiak izan behar dute. "Basapiztien eremua" kateatzen ordu eta erdi inguru egon nintzen, eta horrenbeste denbora katu oin horiekin... kristoren mina nuen oinetan. Bestalde, sokak pisua



hartzen du hor goian. Pausoak oso finak dira... Dena den, horrek guztiak bide horri halako xarmabat ematen dio; altuera horretan, hor goian eskalatzeak ere motibatzen du. Goiko zatia oso bertikala da; oso ongi sentitu behar dira behatz lodiak, eta nik erabat lehertuta nituen. Okerrena hanken mina izan zen. Momentu batean uste nuen goiko zatian eroriko nintzela, erori izan bainaiz. 15 eta 12 metroko hegaldiak eman ditut, baina jarraitu nuen, eta bidea osatzea lortu nuen. Ordu eta erdiko lana izan zen.

**Bide hau "ikaragarria" dela diozu.** Etxauriko alde horri Canteroko iparreko horma deitzen zaio. 90 metroko murru bat da, eta "Basapiztien eremua" bidea behetik goraino joaten da, marra oso zuzenean. Bide oso ona da. Murru guztia lerro zuzen batean zehar katzen du. Bide guztia naturala da, eta Ekaitz Maizek sekulako bista izan zuen bide hori egiten. Ekaitz lagun mina dut; eskalada munduan bisionario hutsa da; prestatu dituen bide gehienak sekulakoak dira. Berak badaki zer dudan gustuko eta esaten dit: "probatu bia hori". Jakina, nik kasu egiten diot. Badakit berak prestatzen dituen ia bide guztiak pedigri hutsak direla.

**Zer sentitu zenuen bidea kateatzea lortu zenuenean?**

Batez ere, lasaitasuna. Jakitun nintzen aurki udako beroa iritsiko zela, eta beroarekin ezin da bide hori egin, irristatzen zarelako. Oso ertz txikiak dira, eta arroakak tenperatura hartzen badu ezin da hortik pasatu. Urduri nengoen, eguraldi iragarpenekin bueltaka. Halako bideak egiteko astro guztiak lerrokatuta egon behar dira (kar, kar).

**Behean, zu segurtatzen, Adrian Legarra zenuen. Horrek konfiantza emango dizu.**

Jakina! Adrian babes handia da; elkarrekin ibiltzen gara eskalatzeko, askotan eskian bikoteka lehiatzen gara, taldekako probetan... Konfiantza handia dugu.

**Eskaladan alderdi psikologikoa ezinbestekoa da, ezta?**

Bai, hemen burugogorra izan beharra dago. Hau oposizio bat

ateratzea bezala da. Erresistentzia proba bat da, eta egun onak eta txarrak jasaten jakin behar da.

**Mundu zabalean ibili zara eskalatzen. Zein toki duzu gustuko?**

Niretzat, Etxauri paradisua da; oso eskola ona da eta bertan dugu. AEBetan Red River oso ona iruditzen zait, eta Australian eta Frantzia aldean ere kristoren eskolak daude.

**Erronken bidez mugitzen zara. Zein dira hurrengoak?**

Orain eskola batetik bestera nabiltzen, entrenatzen. Kanpora joango naiz, bistaz eskalatzea, hau da, entseatu gabe aritzera. Askok gustatzen zait bistaz eskalatzea, baina hemen ezin dut, bide gehienak eginak ditudalako. Horregatik, kanpora atera beharra dut, eta Pirinioetara joan nahi dut, Bielsako eskolara, eta gero Frantziara, Suitzara, Italiara eta igual Alemanian bukatzen dut. Birusa dela eta, oporrak aldatu ditut. Kanpora joatea pentsatua nuen, baina ez naiz fio. Pentsa, urrutira joan eta berrogeialdian 15 egun geldirik egon behar izatea. Horregatik, furgoneta hartu eta Europa aldera joango naiz. Jostailu guztiak eramanez ditut: bizikleta, kranpoiak, sokak eta dena. Alpeetan mendi batzuk egingo ditut, bizikletan ibilikoa naiz eta eskalatuko dut. Denetik pixkat.

**Orain arte zerk bete zaitu gehien?**

Oso zaila egiten zait aukeratzea. Egiten ditudanak kontatzen baditut... Behin saiatu nintzen Urbasako portua korrika, patinetan eta bizikletan igotzen bi ordu baino gutxiagoan. Bazuen berea, baina lortu nuen. Gauza txiki hauek betetzen naute. Halako txikieriek bizia ematen didate.

**Badago guztiaren gainetik egin nahiko zenukeen zerbait?**

Ezer berezirik ez, horrela jarraitzea; osasuna izatea, horrelako gauzak egiten jarraitzeko. Etxaurin proiektu bat egitea dut buruan, baina orain oporretara joango naiz, bistaz eskalatzea, bizikletan ibiltzea eta halako gauzak egitera. Himalayan egoa naiz. Aspaldi joan ginen, eta ia 7.000 metroko mendi batean bide bat ireki genuen. Indian eta Perun ere egoa naiz. Patagoniara joateko ideia dugu, neguren batean... Behintzat ilusioa izatea, hori da garrantzitsua. Buruan ideiak daudenean, egunen batean edo bestean bideratuko ditugu edo behintzat saiatuko gara.

# Froome zuzentzea ametsa dela dio Oscar Guerrerok

**TXIRRINDULARITZA** Israel Start-Up Nation taldeko kirol zuzendari altsasuarrak Froome gidatuko du 2021 denboraldian. Izango duten presioa "izugarria" izango dela adierazi zuen Burunda Txirrindularitza Taldearen aurkezpenean

Oscar Guerrero altsasuarra, Burunda Txirrindularitza Taldeko presidentea izateaz gain, Israel Start-Up Nation World Tour Team taldeko kirol zuzendaria da. Berriki jakin da egun Ineos taldeko liderra den Chris Froome 2021 denboraldian Israel Start-Up Nation taldean ariko dela, Guerreroren aginduetara, eta fitxaketa horri buruz galde-tu zion Juanmari Guajardo speakerak Oscar Guerrerori Burunda Txirrindularitza Taldearen aurkezpenean. "Gure taldearen dako Froome fitxaketa bikaina da; horregatik, izango dugun presioa sekulakoa izango da. Hilabete pare bateko lana eskatu du fitxaketa honek. Ez genuen argi 2021erako Froome gurera etorriko zen ala ez. Bere etorrerak taldea goitik behera aldatuko du; izan ere, txirrindulari laguntzaile onak beharko ditugu bere alboan egoteko eta itzuli handietan lehiatzeko" azaldu zuen Guerrerok.



Guerrero, Burundako aurkezpenean.

Froome munduko txirrindulari handietako bat dela nabarmendu zuen Guerrerok. "Puntapuntako profesionala da. 5 Tour irabazi dituzten 4 txirrindularien ondotik dago, 4 garaipenekin. Contadorren arerio nagusia izan

da, eta hala ere Espainian asko estimatzen dute. Puntako kirolaria da. Vuelgara joan da Tourra irabazi eta gero, askok egingo ez luketena. Taldearen ikuspuntutik asko emango digu eta niretzat, ametsa da handietako bat zuzendu ahal izatea, jasango dugun arduraz jakitun izan arren. Baina horretarako gaude, eta oso kontentu" azpimarratu zuen Guerrerok.

**Igor Arrieta Espainiako junior selekzioarekin kontzentratuta** Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrieta Lizarraga txirrindulari uhartearra Espainiako junior mailako selekzioarekin kontzentratuta egon da aste honetan Altea, Francisco Cerezo selekzionatzailearen esanetara, beste 11 txirrindularirekin. Plouayko Europako Txapelketak (abuztuaren 24tik 28ra) eta Munduko Txapelketak (irailaren 20tik 17ra) prestatzea zen helburua.



## Sakanako Futbol Campuseko 2. txanda, kitto

**FUTBOLA** Sakanako Mankomunitateak Altsasuko Udalaren laguntzarekin antolatutako Sakanako Futbol Campuseko bigarren txandan 2005ean, 2006an eta 2007an jaiotako 11 gaztek hartu dute parte. Maalen Beraza Etxarri eta Aitor Lara Zia monitore sakandarrek

Dantzalekun gidatutako saioretan futbolera trebatu dira, osasun pandemiak eskatzen dituen distantziak eta segurtasuna bermatuta. Datorren astean Sakanako Triatloi Campusaren txanda izango da. 20 gazteendako tokia berehala agortu dela adierazi dute Mank-etik.

**"HORRELA JARRAITU NAHIKO NUKE; OSASUNA IZATEA, HALAKO ERRONKAK EGITEN JARRAITZEKO"**



## AGENDA

Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 17

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ**  
Euskal presoak, Euskal Herrira.  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU Altsasukoak aske.**  
20:00etan, udaletxearen parean.

## LARUNBATA 18

**URDIAIN Eskola mailako**  
txirrindula lasterketa.  
16:00etatik aurrera, plazan.

## IGANDEA 20

**ALTSASU Euskal presoak,**  
Euskal Herrira elkarretaratzea.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 20

**ALTSASU Pentsio duinen alde.**

Sakanako Jubilatuen eta  
Pentsiodunen Koordinakundearen  
kontzentrazioa.  
21:00etan, Zumalakarregi plazan.

## ASTEARTEA 21

**ETXARRI ARANATZ**  
Zinema kalean euskaraz.  
Mustang filma. Bakioitzak bere  
eserlekua eta maskara eraman  
beharko ditu.  
21:30etik aurrera, eguraldiaren  
arabera ikastolako patioan edo  
frontoian.

**ALTSASU Gozamenek programa.**  
GozaBizi: Jolasak, antzerkia eta  
zirkua Pantxikarekin. 12 eta 16 urte  
bitarteko gazteendako.  
21:30etik aurrera, lortia  
zabalgunean. Eguraldi txarrekin  
Burunda frontoian.

## ASTEAZKENA 22

**IRURTZUN. Zinema euskaraz:**  
Gazte harrigarria, T.S. Spiret.  
22:00etan, eskolako patioan.

**UHARTE ARAKIL Gozamenek**

**programa.**  
GozaBizi: Jolasak, antzerkia eta  
zirkua Pantxikarekin.  
12 eta 16 urte bitarteko  
gazteendako.  
21:00etan, plazan.

## OSTEGUNA 23

**ALTSASU Guztion artean jaiak**  
herritik herriarentzat.  
Festak antolatzeke batzarra.

19:00etan, Burunda frontoian.

**LAKUNTZA Gozamenek programa.**  
GozaBizi: Jolasak, antzerkia eta  
zirkua Pantxikarekin.  
21:00etan, plazan.

Gure altxorra  
denon eskura

Jarri gurekin harremanetan: publi@guaixe.eus | 661 52 32 45

PUBLIZITATEA



Ikasturteko  
**AZAL POLITENA**

Sakandarrek gogokoen duten azala zein den jakiten lagun gaitzazu. Hiru azal aukeratu ditzakezu eta parte hartuz gero eta bazkidea bazara. Aralar, mundua lekua den lurra dokumentala, liburua eta ipuinak eta guaixe25 kit-a oparituko den zozketan sartuko zara.

**www.guaixe.eus**



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • **www.dekovenavarra.com**  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • **ALTSASU**  
Telf./Faxa: **948 468 360** • Telefono mugikorra: **690 641 860**





## IRAGARKI SAILKATUAK

## IKASTAROA

**Pandero tailerra Lakuntzan:** Taldekako jarduerak izango da; maila ezberdina, hizkuntza musikalki gabe eta adin guztietarako. Inskripzioa udaleko web orrian.

## LEHIAKETA

**GOZAMENEZ laburmetrai lehiaketa:** 12 - 25 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Bakarka edo taldeka aurkeztu daitezke lanak. Izena emateko epea uztailaren 23an amaitzen da. [info@alzasasu.net](mailto:info@alzasasu.net), [WhatsApp](mailto:WhatsApp) 608 617 778 edo 948 564 785 ifonoan argibide gehiago. Animatu sari potoloak daude eta!

**Etxarri Aranazko abesbatzen 50. urteurrenaren logotipo lehiaketa:** Edonork parte har dezake. DIN A4 formatuan (ordenagailuz edo eskuz eginda), bi lan gehienek aurkeztu daitezke. Saria 150 euro. Lanak uztailaren 31a baino lehen bidali behar dira. Etxarri Aranazko abesbatza; Maiza kalea 60, 31820 Etxarri Aranatz. Informazio gehiago 628 077 822 ifonoan.

## OPATUTAKOAK

**Haur baten bizikleta topatu dugu:** Etxarri Aranazko Bergara kalean, Pjmask gorria eta lau gorpilduna. Zurea bada deitu 948 564 275 ifnora.

**Erreka markako urrutiko agintea** aurkitu nuen igande, Etxarritik Lizarrustirako bidean. Zurea bada, deitu 948 564 275 ifnora.

**Armani markako be-taurerako graduatuak** topatuta Etxarri Aranazko plazan maiatzeko azken asteburuan. Deitu 630 49 08 44.

## OHARRAK

**Aralarko santutegian bisita gidatuak:** San Migel santutegia ezagutzeko bisita gidatua egin daiteke. Izena emateko

hots egin 948 373 013 edo [miguelxcelis@gmail.com](mailto:miguelxcelis@gmail.com).

**Mentore bila Altsasun:** Gazte migranteekin egon nahi duten pertsonen bila gabilta: Astean behin, ordutegi malgua. Sei elkartek (lirisi berriak diren nerabeen harreraren, dolu migratorioaren laguntzan eta gizarteratzean espezializatutako zerbitzuak) Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo [gestorasocial@asociacionsei.org](mailto:gestorasocial@asociacionsei.org) e-postara idatzi dezake. [www.asociacionsei.org](http://www.asociacionsei.org), informazio guztia dago.

**Ayuda Contenedores erakundearen material bilketa berri martxan:** Altsasuko Ayuda Contenedores Gobernuz Kanpoko Erakundea material bilketa egiten hasi da berriz. Denetarik jasotzen dute: arropa, zapatak, eskola materiala, jostailuak, bizikletak, higiene produktuak, haur oihalak, sendaketak egiteko gazak eta bendak, mantak, ordenagailuak eta beste. Asteazkenetan, azoka egunean, goizeko 10:00etatik 13:00etara egiten dute material bilketa, Altsasuko Frontoiko Zeharbidetaren 14. zenbakiko udalaren baxeraren. Poltsak itxita eraman behar dira, eta astebeite ibita mantentzen dituzte, berrogeialdian. Egun bereziki Afrikara ari dira bidaltzen hemen jasotako, edukiontzietan.

**Urteurren aldizkaria:** Aurten Altsasuko Gazteria Zerbitzuak 25 urte betetzen ditu eta Intoxisitapunta gazte guztiak 10 urte. Urteurrena ospatzeko aldizkaria sortuko dute, zerbitzuaren historia memoria izanen dena. Baina, aldi berean, Gazteria Zerbitzuak etorkizunaren landu beharko dituen esku hartze ildoen gainean gogoeta egin nahi da. Aldizkarirako iritzia, artikulua, argazki edo ideiak eman nahi dutenak

honako bideak erabili beharko dituzte: [info@alzasasu.net](mailto:info@alzasasu.net), [gazteria@alzasasu.net](mailto:gazteria@alzasasu.net) emailletara idatziz, edo 608 617 778 - 948 564 785 telefonoetara deituz.

**Adingabe atzeritarrekin egoteko boluntarioak:** bakarrak dauden adingabe atzeritarrek bizi dira Altsasun. Haiei udan akonpainamendua egiteko boluntarioak behar dira. Gizarte eta hezkuntza arloko akonpainamenduaz aparte aisialdiko jarduerak egiteko da. Altsasun ostiralean 11:00etatik 14:00etara. Altsasun, gainera, mentore izateko aukera dago. Sei elkar-tearekin harremanetan jartzeko: 948 239 739 edo 673 329 449 eta [gestorasocial@asociacionsei.org](mailto:gestorasocial@asociacionsei.org) Informazio gehiagorako: [www.asociacionsei.org](http://www.asociacionsei.org).

**Gazte Karnetaren 30. urteurrena dela eta Nafarroako Gobernuak hura duten gazteei Nazioarteko Aterpekeide Txartela oparitzen ari die.** Azken horrek munduko 4.000 aterpe baino gehiagotarako sarbidea ematen du. Horretaz aparte, makina bat deskontu eta gazte mugikortasun programetarako sarbidea ematen du ere. Nazioarteko Aterpekeide Txartela oparitzen jaso nahi duenak [www.juventudnavarra.es/ew/hasiera](http://www.juventudnavarra.es/ew/hasiera) web gunearen bidez egin dezake eskaera.

**Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntzearen eraikina zaharberritzeko proiektuan** lagundu nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote [www.iragarkilaburrak.eus](http://www.iragarkilaburrak.eus)


## HERIOTZAK

- **Pedro Miguel Barandiaran Lazkoz**, uztailaren 2an Arbizun
- **Engracia Lizarraga Goikoetxea**, uztailaren 3an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.


## EGURALDIA ASTEBURUAN

## Ostirala, 17




Lainotuta esnatuko da eguna eta goizaldean euri pixka bat egin lezake. Baino egunak aurrera joan ahala, hodeiak desagertzen joango dira.

## Larunbata, 18




Nahiz eta eguna hodei batzuekin esnatu, zerua garbi izango dugu egunaren zati nagusiaren eta tenperaturek gora egingo dute.

## Igandea, 19



Eguzkia izango da eguneko protagonista, eta ondorioz, tenperaturen igoera nabarmena izango da gurean.

## Astelehena, 20



Giro beroarekin jarraituko dugu, baina noizbehinka hodeiak izango ditugu zeruan. Gauean ekaitzak ere leher daitezke.

**Hemen eta online**

iragarki laburrak .eus

iragarki laburrak .eus

## Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:  
24,20 euro  
948 564 275

## Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:  
14,52 euro  
948 564 275

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75  
edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)





Jorge Cordon musikaria 'Kimera' antzezlanean. LA BANDA CIRCO-TEATRO

# "Oreka bilatu nahi dut"

## JORGE CORDON 'IORTX' MUSIKARIA

Irurtzundarrak bere musikari alderdia azaleratu du 'Kimera' antzezlanean. Antzerkia, zirkua eta musika uztartzen ditu lanak, "batasun" bat sortu arte

**Erkuden Ruiz Barroso** IRURTZUN Sakana aldean, agian, soinu eta argi teknikari bezala da ezaguna, baina Jorge Cordon *Iortx* musikaria da. Betidanik jotzen du pianoa, eta, orain, La Banda teatro-circo konpainiaren *Kimera* ikuskizunean parte hartzen du. Antzezlanean musika sortu du ere. Egoera asko aldatzen ez bada, uztailearen 30ean Erriberriko Antzerki Jaialdian egonen da eta abuztuaren 30ean Altsasun izanen da, Nafarroako Zirkua jaialdiaren barruan.

**Zure lehenengo ikuskizuna al da?** Beti musikari lotua egon naiz. Sakanan teknikari bezala ezagutzen nauzue, baina ni musikaria naiz. Musikatik nator. Txikitatik jo izan dut pianoa. Musika orkestretan aritu naiz, baina musikatik bizitzea zaila zela iruditzen zitzaidan, eta soinu eta argi teknikari lanetik bizitzea erabaki nuen. Konturatu nintzen ongi moldatzen nin-

tzela ere. Orduan, bizitza irabazteko teknikari bezala aritu naiz, baina musikari bezala gauzak egiten jarraitu dut. Antzerkian zenbait talderekin kolaboratu dut; kolaborazioak egitea eta jendea laguntzea gustatzen zait. Trasteandorekin, Haize Berriak bandarekin... Altsasun ia kolektibo guztiekin aritu naizela uste dut. Baina konpainia profesional batean ari naizen lehenengo aldia da. Proiektu hau asko gustatu zitzaidan antzerkia eta zirkua uztartzen dituelako, eta musika zuzenean egiten delako. Oso interesgarria iruditzen zitzaidan. **Nola sortu zitzaizun parte hartzeko aukera?**

**"'KIMERA' BEZALAKO IKUSKIZUN BATEAN KONTZEPTUA GUZTIZ ALDATZEN DA"**

Izaskun Lasarte, Txetxu Collado eta Nano Napal, La Banda teatro-circo konpainiako kideak, aurretik ezagutzen nituen. Nafarroan kulturaren mundua ez da hain handia, eta denok ezagutzen dugu elkar. Nano ezagutzen nuen gehienbat. Teknikaria da bera ere, eta noizbait zerbait egin behar genuela esaten genuen. Aukera hau sortu zen. Nanoren eta Izaskunen ideia bat izan zen eta "casting" antzeko bat egin zidaten. Pixka bat pianoa jo nuen, eta, dirudienez, gustatu zitzaien. Ni sartzea erabaki zuten. Ni, oso pozik. Gogoan nuen soinu eta argi teknikari lanetatik musikaren mundura pasatzeko. **Pianoarekin kolaborazioak egitera ohituta zaude, baina orain ikuskizun baten parte zara. Zer desberdintasun ikusi dituzu?**

*Kimera* bezalako ikuskizun batean kontzeptua guztiz aldatzen da. Lauron arteko koreografia bat egiten dugu, eta laurak ba-

tera joan behar gara. Gauza bakarra bihurtzen gara; batasun bat lortu behar dugu. Horretarako, entsegu asko egin behar ditugu. Musikarekin jarraitu behar ditut haiek egiten dituzten mugimenduak; beraz, entsegu gehiago eskatzen ditu, eta nire aldetik inplikazio handiagoa ere bai.

**Musika ere zurea da.**

Bai. Parte hartzen dudana proiektu guztietan nire musika egitea eskatzen diet.

**Eta nolakoa da zure estiloa?**

Librea. Denetarik egiten dut. Talde batekin ari naizenean, moldatzen naiz. Lan honetarako, antzezlanean eskatzen duenera moldatu naiz. Joxerra Martinez zuzendariak obra guztian du buruan, eta badaki zer behar den eszena bakoitzean. Orduan, niri bururatu zaidana eta Joxerrak esan didana jarraitu dut musika sortzeko.

**Zer kontatzen du 'Kimera'-k?**

Nahiko ezohikoa da egiteko moduagatik; erabiltzen duen lengoaiagatik. Komedia ukituak dituen drama da, zirkua lengoaiarekin kontatuta. Dene-tarik dauka. Portu batera iristen den neskatxo baten istorioa da, eta bertan elkartzen den jendearekin daukan harremana kontatzen du. Migrazioaren inguruko lana da.

**EZOHIKO EGOERA**

**Urtarrilean antzezlana mustu zenuen, eta, bat-batean, mundua gelditu zen. Zer moduz eraman duzu konfinamendua?**

Kulturatik bizi edo kulturaren ari garenek gaizki pasatu dugu, arlo ekonomikoari begiratuta. Ez dugu diru sarrerarik izan. Agian estatuaren dirulaguntzaren bat... Baina, beste alde batetik, konfinamenduan nahiko ongi ibili naiz. Uste dut entretenitzeko ahalmen handia dugula musikariok, jotzeko eta gauzak sortzeko aprobetxatu dut. Makalan taldea martxan jartzen ari ginen aurretik, eta bideotxo bat sortu genuen ere.

**Kontzentratu egin zen kulturaren sektorea. Zer eskatu zenuen?**

Gremio garrantzitsu bat bezala kontuan hartzeko. Garrantzitsua eta ezinbestekoa dela, eta balioa eman behar zitzaio-la. Hasiera batean, kultura ez zuten beharrezkotzat ikusi, baina konturatu ziren jende asko dagoela kulturaren atzean, horrek suposatzen duen guz-

tiarekin. Badirudi azkenean zerbait lortu zela, gutxienekoa bada ere.

**Pixkanaka agertokiak bizitzara itzultzen ari dira, eta zuek Erriberri egongo zarete. Zer da hori du zuretzako?**

Pozik nago. Antzerki klasikoko jaialdi bat da, eta guk antzerkia eta zirkua egiten ditugu. Ez da Erriberri normalean ikusten dena, eta oso polita da gu deitu izana.

**Hainbeste denboraren ondoren, berriz mustutzea bezalakoa izanen da. Urduri?**

Urte honetan gertatu den guztiarekin ezerk ez nau urduri jartzen. Gogoan handiagoa da.

**TEKNIKARIA ETA MUSIKARIA**

**Agertokiaren zer alde nahiago duzu?**

Egia esan, bi gauzak gustatzen zaizkit. Teknikari lana oso sormenezkoa da, eta jende asko ezagutzen da. Gure artean giro oso polita izaten dugu. Bestalde, musikaren mundua desberdina da. Sorkuntza desberdina da, eta lana ere desberdina da. Nik biak uztartu nahi nituzke, orekatzea. Azken urte hauetan, teknikari bezala, lan asko egin dut, eta orain musikarekin uztartu nahiko nuke. Horretan ari naiz orain, oreka bilatzen. Agian, bat-batean, musikaren mundua gailentzen da. Bizitzaren faseak dira.

**Batzuetan ikusezina da teknikariaren lana, baina ezinbestekoa da.**

Askotan gertatzen da. Kultura, gaur egun ezagutzen dugun bezala, ezin da teknikaririk gabe ulertu. Ezinezkoa izango litzateke. Ikusten eta entzuten dena posible da teknikari batek bere arte ikuspegitik horrela jarri duelako, eta artistaren mezua-rekin bategiten du. Garrantzitsua eta polita da.

CONSTRUCCIONES ALZATE S.L.

**ALZATE ERAIKUNTZAK S.L.**

Zubeztia 21, Altsasu  
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600  
www.construccionesalzate.com



# Normaltasun berriko doinuak

Haize Berriak banda entseguetara eta kontzertuetara itzuli da. Musikariek segurtasun neurri guztiak hartzen dituzte, eta hilaren 24an eta 25ean Altsasun eta Arbizun kontzertuak eskainiko dituzte

**E. Carreño eta E. Ruiz** ALTSASU

Koronabirusak eragindako osasun krisiaren ondorioz, Haize Berriak bandaren kontzertu eta entsegu guztiak bertan behera gelditu ziren. Baina bandako musikariak "beti zerbait egiten" aritzen dira, eta etxean entseatzen aritu dira. "Aurretik bagenituen partiturak, eta, bestela, zuzendariak mail bidez bidaltzen zizkigun". Iosu Rubio Haize Berriak bandako kideak azaldu duenez, derrigorrezko etelaldiaren aurretik, kontzertu batzuk "erdi prest" zituzten; beste batzuk, aldiz, "ukitu gabe" zituzten, "urtean zehar egitea zen ideia".

San Joan egunean ezin izan zuten egin urtero Altsasuko Foru plazan egiten duten kontzertua, baina banda kalera atera zen. Datozen bi kontzertuak formatu berrian egingen dituzte: kalean. Bata, Altsasuko Iortia zabalgunean -uztailaren 24an, 22:00etan-, eta bestea, Arbizuko plazan -uztailaren 25ean, 19:00etan-. Munduko musikak eskainiko ditu bandak.

## Konfinamendua

Musika egiteko baliatu dute musikariek itxialdia. "Nork bere auzoan ikusten zuen giroaren arabera ateratzen ginen. Esan beharra dago nahiko aktibo egon garela". Balkoira musika jotzera atera ez ezik, bandako kideek etxean ere entseatu dute. Sare sozialetan elkarbanatzeko bideo bat prestatu zuten ere. Kalera ateratzen ere lehenengoak izan direla esan du Rubiok.

Haize Berriak banda 30 bat musikarik osatzen dute; "beti ez gara denok elkartzen". Entseguak duela hilabete inguru hasi zituzten, eta entseatzen zuten Nafarroako lehenengoak izan zirela esan du Rubiok. Artean, taldeak elkartzeko pertsona muga zegoen, eta "lehendabiziko entseguetan gehienez 20 elkartu gintezkeen. Hortaz, batzuk ezin izan ziren etorri". Ondorengo entseguetarako kopurua igo zutela azaldu du musikariak. Segurtasun neurriak betetzen dituztela esan



Haize Berriak banda entseguetara itzuli da, segurtasun neurriak betez.

## ALTSASUN ETA ARBIZUN KONTZERTUAK ESKAINIKO DITU BANDAK

du: "Ohituta gaude. Aurretik ere, entseatu ondoren, dena garbitzen genuen, Iortia gela horretan taldeaskokentseatzen dutelako". Orain, behin bukatuta, aretoa garbitzen dute. Halaber, hainbat segurtasun neurri hartzen dituzte: aretoan maskara jantzen dute, musikarien artean gutxienez metro bateko tartea utzi behar dute, eta eskuak hidrogelarekin garbitzen dituzte. Perkusiojoleek, gainera, entseguan maskarak eta eskularruak jantzi behar dituzte. Zuzendariak ere maskara jantzi behar du.

## Aldaketak

Duela urte bat, 14 urtez Haize Berriak bandako zuzendaria izan zen Luis Orduñak banda uztea erabaki zuen. "Oso eroso geunden Luisekin; bandakide bat zen. Baina bere zikloa Altsasun beteta zegoen. Zuzendari bezala hazten ikusi dugu, hemen zegoela burutu zituen ikasketak ...

Bagenekien egunen batean joango zela". Iazko Altsasuko festetan hartu zuen Erriberriko David Sanchezek banda zuzentzeko batuta, lehendabiziko aldiz. "Aukeratzen ibili ginen, eta Davidi Luisen antza hartu genion: gaztea, zuzendaritzan ikasketak zituena, ausarta...". Haize Berriak banda bizia eta berritzailea da, eta Sanchezekin "asmatu" dutelaustedu Rubiok. "Pozik gaude".

Bigarren aldaketa nagusia konfinamenduarekin etorri zen. Kalera berriz ateratzeko gogo handia zuten, eta San Joan egunean, nahiz eta ospakizunak bertan behera gelditu, kalejira egin zuten. "Oso polita, gainera. Jendeak eskertu zuen". Lehenago atera nahi zutela aitortu du Rubiok, "baina ezin zen. Formatu txikiagoetan egin zitekeen, baina banda bezala ez".

Dagoeneko, udarako zenbait hitzordu dituzte. Lehenengoak datorren asteburuan izango dira, hilaren 24an eta 25ean, Altsasuko Iortia zabalgunean eta Arbizuko plazan hurrenez hurren. "Aurretik geneukan egitaraua mantentzen saiatu gara. Altsasuko festetan Mielotxin taldearekin ariko gara". Udazkenerako Galiziako zirku talde batekin zerbait egitea pentsatuta dutela aurreikusit du Rubiok.



Iker Uribe Lekunberrin egin duen Berri Txarrak taldearen muralaren aurrean.

## Mezu bat Lekunberriko horma batean margotuta

Berri Txarrak taldearen omenezko murala margotu dute Lekunberrin, eta sinadura sakandarra du: Iker Uribe

**Erkudern Ruiz Barroso** LAKUNTZA

Lekunberriko trinketeak 100 urte bete zituen 2019. urtean, eta urteurrenerako trinketea eta frontoiko fatxada margotzeko proposamena jaso zuen Iker Uribe artista lakuntzarrak. Proiektuan lanean ari zela, lekunberriar talde batek, udalaren laguntzarekin, omenaldia egin nahi izan zion Berri Txarrak taldeari, frontoiko beste aldeko horma batean mural bat margotuz. "Herritar taldeak eta udalak proposatu zidaten beste toki horretan Berri Txarrak-en horma irudia margotzea". Lan batek bestera eraman zuen.

Lan guztietan Uribek "pasioa" jartzen du. "Lan ona egitea gustatzen zait, eta ez naiz edozer gauzarekin konformatzen". Berri Txarrak taldearen omenezko murala egiten "erantzukizuna" sentitu duela aitortu du: "Ardura eta ohorea ere bada. Horrelako lan bat esku artean izatea aprobetxatu behar da, eta ongi egin".

Uribek hainbat irudi proposamen egin zituen eta udalekoei aurkeztu zizkien. "Esan dezakegu bidean taldekoek horren berri izan zutela". Sorpresa izan behar zen, baina mural bat kalean egiteak ez du sorpresarako aukera handirik ematen: "Nik esan nien sorpresarena ezinezkoa zela kalean margotzen ari bainintzen". Gorka Urbizuk, Berri Txarrak taldeko kideak, Lekunberrin bizi denez, muralaren berri izan zuen, eta Uriberekin irudia landu zuen. "Gaia jarritako proiektua izan da, egitera ohituta nagoenaren aldean oso desberdina, frontoiaren beste

aldean, beste fatxadan egin dudaren aldean oso desberdina".

## Sentimendua

Uriberen "burutazioak" baino gehiago Lekunberriko taldeak zaleendako suposatzen duena irudikatu nahi zuen artistak, taldeak transmititzen duena. Lortu duela esan daiteke: "Pozik nago emaitzarekin. Zaleek eta herritarrek komentatzen dute oso Berri Txarrak dela. Nik uste asmatu dugula". Zerbait "xumea" egin nahi zuten. Hortaz, rockaren alde iluna azaleratu dute, eta bi irudi margotu ditu Ikerrek "oso ikonikoa" den Urbizuk jotzen duen gitarra eta eskua. Murala ukabil batek, baketek eta taldearen tipografiarekin idatzitako Berri Txarrak letrek osatzen dute. Dagoeneko zaleak hurbildu dira argazkiak egitera. "Flipatzen nago".

Uriberi "asko gustatzen" zaio itxuraz itsusi edo oso zainduak ez dauden hormei kolorearen eta figuren bidez "bizitza" ematea. "Espazio horiei buelta bat ematea". Kalea eta jendea aldatzen direla dio: "Nik sentitzen dut beste postasun bat dutela. Gure bizitzan espazioa inportantea da". Lekunberriko trinketaren eta frontoiaren murala egitea lan handia izan da Uriberekin, izan ere, espazioa ia 200 metro koadro zituen. Berri Txarrak-en muralarekin alderatuta, frontoiko oso koloreduna da, eta lekuaren historia kontatu du marrazkien bidez: "Herri kirolak, pilotariak, korrikalariak... margotu ditut".



Erkuden Ruiz Barroso OLATZAGUTIA

## 1 Noiz hasi zinen Olaztiko erraldoiak eramaten?

Hemen 45 bat urte egin behar ditut; hona etorri eta gutxira hasi nintzen, 1983. urtean.

## 2 Zergatik hasi zinen?

Ni Faltzestik nator, eta Faltzesen, alabak txikiak zirenean, erraldoiak dantzatzeko nituen lagun batekin. Bertan erraldoiak dantzatzeko nituenez, garaiko apaizak esan zidan Olaztin bazirela erraldoi batzuk, eta ea zerbait egin nezakeen. Baietz esan nuen.

## 3 Nor dira Olaztiko erraldoiak?

Nafarroako Erregeak, Blanca Nafarroakoa eta Iñigo Aritza, eta Miguel eta Paloma. Aurretik bikote bakarra zegoen, Errege Katolikoak. 1990. urtean orduko alkateari beste bikote bat egitea eskatu nion. Duela zazpi urte nirekin batera erraldoiak ateratzen zituen laguna hil zen, Miguel, eta erraldoi berrietako bati bere aurpegia jarzea proposatu nuen. Emakumezkoari Paloma izena jarzea proposatu zuten, Olaztin Paloma deitzen zen emakume ospetsu bat zegelako. Hemengo jantzi tradizionalak jarri genizkien. Lau buruhandi daude: Andereñoa, Paloma, Pailazotxoa eta Deabrua. Betikoak dira. Haurrendako bi zizare egitea proposatu nuen, eta herriko jostun tailer batek egin zituen.

## 4 Aurretik erraldoi gehiago izan ziren?

Errege Katolikoaren faktura 1975koa da. Nik uste aurretik ez zegoela besterik. Bi horiek erosi zituzten, behin-edo dantzatu zituzten, eta, gero, utzi zituzten.

# "Eskertuta sentitzeko modukoa da"

Duela 40 urte inguru, Julio Marques Amillo faltzestarra Olaztira etorri zen. Sorterrian zuen zaletasunarekin jarraituz, Olaztiko erraldoien konpartsaren arduraduna bihurtu zen. Aurten festak bertan behera gelditu direnez, erraldoiak ez dira aterako



Julio Marques Amillo, Olaztiko erraldoien konpartsaren arduraduna.

## 5 Herriaren babesa izan duzu?

Udala beti oso ongi portatu da. Baztarrika, Blanki, Marcelino... alkate guztiak. Orain erraldoiak prestatzeaz arduratzen naiz, eta erraldoiak dantzatzeko gazteak hemen egoteaz. Udalak Santa Ana egunean bazkari batera gonbidatzen gaitu. Naizen modukoa nai-

zenez, amorrua ematen dit uzteak. Gazteak arduratsuak dira, eta ez dut kexarik. Baina gustatzen zait. Hala ere, askotan esaten diet ez naizela betirako egongo.

## 6 Zenbat pertsona aritzen zarete?

Festetan bi egunetan ateratzen gara: lehenengo egunean

eta Santa Ana egunean. Eguna-ren arabera izaten da harre-ra: Lehenengo egunean jende gehiago ibiltzen da, baina meza-ren egunean, festetako bi egun pasa direla, jende gutxiago egoten da. Baina beti aterakoa.

## 7 Erraldoi topaketak antolatzen zenituzten, ezta?

Behin Tuterako topaketara baina konpartsa gehiago etorri ziren hona. Ez naiz ongi gogoratzen, baina Tuteran 54 izan baziren, hemen 55 izan ziren. Baina hamar edo hamabi konpartsa etortzen badira, gero zuk leku horietara joan behar duzu; eta jendea kexatzen hasi zen. Baina esaten badidate topaketa bat egin nahi dutela, nik antolatuko dut. Konpartsek Olaztiko topaketen oroitzen onak dute. Deitzen diguten toki guztietara joaten gara: Axio Floresen omenaldian egon ginen, autismoaren topagunean eta, azkena, Altsasuko Nafarroa Oinezen. Pena eman zidan Altsasukoak ez zirelako aterakoa.

## 8 Zer behar da erraldoiak eramateko?

Erraldoi hauek edonork eramanez ditzake. Aluminiozko estrukturak egin nitzkien, eta ez daukate

pisu handirik. Arinak izan zitezkeen arduratu nintzen. Lau erraldoiak desmuntatzen dira, eta autobusean sar daitezke. Erraldoiak asko gustatzen zaizkit, eta horregatik egiten dut. Zaletasunagatik.

## 9 Zer sentitzen duzu erraldoiak eramatean?


Etxe bateko balkoi batean emakume bat egoten zen, orain adinduen egoitzan dagoena. Bere aurrean erraldoia dantzatzeko nuenean, emakumea, hunkituta, etxe barrura sartzen zen. Lan oso polita egiten dugu. Gazteak ez dira konturatzen egiten ari direnaz! Eskertuta sentitzeko modukoa da. Esfortzua egiten da, baina jendeak eskertzen du. Nire ustez, sari hori da garrantzitsua. Ikustea gaztetxoak udaleko bazkari ofizialera etortzen direla, eta pozik egoten direla... Horrek asko harrotzen nau. Asebetetze hori ematen dit.

## 10 Zer dantzatzeko dute erraldoiek?

Dagoeneko ikasita dituzte dantzak. Azkenaldian, Altsasuko gaiteroak etortzen dira. Entseatu gabe ere oso ongi egiten dute. Gutxi gorabehera zer egin behar duten esaten egoten naiz ni.

## 11 Aurten ez da festarik izanen...

Ahal den moduan egin beharko dugu aurrera! Erraldoiak aterakoa behar ditugula esan didate, baina nola aterakoa behar ditugu? Ez dago festarik! San Miguel egunean ere ateratzen ditugu, baina honekin guztiarekin ez dakit ateratzetik izango dugun. Festak ospatuko ez ditudan lehenengo aldia da.



# EZAGUTU GURE IDEIEN EZTANDA

gk


DISEINUA ETA  
KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu • 948 564 275 • info@gkomunikazioa.eus





# Metro eta erdi, amets egiteko



Sintomak badituzu, isolatu etxean eta deitu berehala osasun etxera  
Mantendu distantzia eta erabili maskara  
Eskuak, maiz, ondo garbitu

**ZAINDU ZAITEZ, ZAINDU GAITZAZU**